

danbolin

2023 AZAROA

254^{pk.}



Juana
liburua kaleratu du
Jon Artanok



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



640 917 626



Portale Kalea 7, 20740 Zestoa
tel. 943 147 088

txoko
taberna

erdikalea 3
tel. 943 147 196



OGI BERRI

tel. 943 536 314

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657

MGS

Mutua General de Seguros

JAVIER ALBERDI

Aseguru agente eksklusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es



Zestoa

AUTOESKOLA

Gesalaga 1

Tel. 943 148 524

20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

943 147 344 Iraeta-Zestoa

UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA	
1	2	1	2	1	2
3	4	3	4	3	4
5	6	5	6	5	6
7	8	7	8	7	8
9	10	9	10	9	10
11	12	11	12	11	12
13	14	13	14	13	14
15	16	15	16	15	16
17	18	17	18	17	18
19	20	19	20	19	20
21	22	21	22	21	22
23	24	23	24	23	24
25	26	25	26	25	26
27	28	27	28	27	28
29	30	29	30	29	30
31		31			

URRIA		AZAROA		ABENDUA	
1	2	1	2	1	2
3	4	3	4	3	4
5	6	5	6	5	6
7	8	7	8	7	8
9	10	9	10	9	10
11	12	11	12	11	12
13	14	13	14	13	14
15	16	15	16	15	16
17	18	17	18	17	18
19	20	19	20	19	20
21	22	21	22	21	22
23	24	23	24	23	24
25	26	25	26	25	26
27	28	27	28	27	28
29	30	29	30	29	30
31					



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriaarin.com



IRAETA JATETXEA

Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola

Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



HARATEGIA
LOPENE
tel. 943 147 848 - 607 186 006



kutxi eta
pentsuak

Laitak
ZESTOA

www.laitakdenda.com
tfnoa: 943148134

laitak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



Aranburu

Landetxea
eta
jattetxea

943 148 005



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna

943 052 761



Fati
taberna

ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69



Itzulpen eta
argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino
askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA

665 49 07 73



KOIOTE

foru plaza, 4

tel. 943 147 095



Araneta
ERRETEGIA

626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

Juanaren BILA

Juana Perea. Juana, laburrean. Aurten 53 urte beteko lituzke 2020ko urrian Kolonbiako narkoparamilitar talde batek hil izan ez balu. Juana Perea. Juana. Hego Amerikako herrialdean azken hamarkadetan indarkeriaren ondorioz hildako "beste bat" izan zitekeen, eta askorentzat ere hala izango da. Baina hori baino gehiago ere bai. Juana Perea. Juana: abenturazalea, urpekaria, marinel, pirata, preso, ekintzaile ekologista, lider soziala... Juana Perea. Juana (Bogota, 1970-Nuqui, Kolonbia, 2020), euskal jatorriko familia bateko «ardi beltza».

Jon Artanok ez zuen Juanaren berri zehatzik 2022an, Tene Mujika beka *Anderik Ande* egitasmoarekin irabazi zuenean. Sari hark akuilatuta, Argentinan, Txilen, Bolivian, Perun, Ekuadorren, Venezuelan eta Kolonbian barrenako sei hilabeteko bidaiari ekin zion, Hego Amerikara joandako hainbat euskal herritarren nahiz handik Euskal Herrira etorritako beste batzuen istorioak jaso eta liburu batean biltzeko asmoarekin. Juanarena ez zen, hasiera batean, istorio haietako bat, baina, Kolonbian zegoela, haren berri izan, eta bere asmo guztiak aldatu behar izan zituen Jonek. Juana, liburu azken ataleko protagonista izan zitekeena, liburu arduzko zuen pertsona bilakatuko zen. Ikerketa lanean senideak eta Juana ezagutu zutenak elkarrizketatu ditu Jonek, baina, ezinbestean, ahotsik garrantzitsuena falta da liburuan, Juana berarena, eta herriko kazetariak berak egin du aitortpena: egunak eta egunak igaro ditu haren xerka, orduak pasatu ditu batekin eta bestearekin hizketan, baina ezin jakin Juanarekin berarekin ordu erdiko solasaldi bat izan balu emaitza hau bera edo beste izango litzatekeen.

Horiez guztiez hitz egin du Artanok Danbolinen azken ale honetan, baina ez da aldizkarian irakurri ahal izango duzuen elkarrizketa bakarra.

Grisen taldeak abenduaren 30ean Azpeitiko Sanagustin aretoan egingo duen kontzertuarekin emango dio amaiera hogei urteko ibilbideari. Alejandro Orbegozo Griseseko partaidea izan da hasieratik, baina orain, taldearen amaiera iristear dela, beste proiektu bat du esku artean: *Ke Lepo*. Musika elektronikoari emanda, Alejandrok dagoeneko bere bakarkako lehenengo diskoa dauka esku artean, *Izpi*, eta hasiera batean, halakoetarako inolako asmorik ez bazeukan ere, Aritz Cestonari aitortu dio azkenean horretara ere jarri dela. Lehenengo zita, abenduaren 2an, Bergaran. Hurrengo, 9an, Durangon. Azokan bertan.

mikel lizarralde



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazitea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARTIST, URKO CANSECO, SARA MASCUGANI, NAIARA OLAIZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JONE BERGARA ETA ITSASO WALIÑO

Kolaborabazitea/argitarabazitea:

NAGORE CELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JANIRE DIAZ, ETA MAIALEN KORTADI

Disainua eta maketazioa:

ENEKO ARTIST

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



EUSKARA IKASTEN

Esti, a ze sorpresa hartu dudan! Ez nuen espero inoiz Enbidoa jasotzea. Ea ba, nire burua aurkezten hasiko naiz. Mariam dut izena eta Saharan jaio nintzen. 1989an Kubara joan nintzen bizitzera, 13 urterekin, eta bertan egin nituen ikasketak, 2001era arte. Laborategi klinikoa ikasi nuen. 2001ean Saharako errefuxiatuen kanpamendura itzuli nintzen. Bertan ospitale batean hasi nintzen lanean, eta urte batzuk beranduago, eskolak ematen hasi nintzen, erizain laguntzaile moduluan. 2007an Saharatik irten eta Andaluziara joan nintzen, bizitza hobe baten bila. Bakarrik iritsi nintzen, eta han ezagutu nuen nire bikotea. Askotariko lanetan aritu nintzen, baina 2013an krisia iritsi zen eta lanik gabe gelditu ginen biok. Euskal Herrian lana zegoela



esan ziguten eta hona etortzeko erabakia hartu genuen.

2014an iritsi ginen Zestoara bi seme-alabekin. Hirugarren semea Zestoan jaio zen, 2019an. Andaluziatik gentozen eta hasiera arraroa izan zen guretzat dena desberdina zelako, baina denbora gutxian ohitu ginen.

2021ean euskara ikasten hasi nintzen Euskaltegian, Ainhoarekin, eta aurten Nerea da nire irakaslea. Hasierako fasean nago, pixkanaka ari naiz. Etorkizunean euskaraz ondo hitz egitea espero dut, edo komunikatzeko gai izatea nahiko nuke behintzat. Bertako hizkuntza ikastea oso garrantzitsua dela deritzot; izan ere, bizi garen tokian bizitzeko eta komunikatzeko ezinbestekoa da. Nire seme-alabek euskaraz ikasten dute eta haiei etxeko lanak egiten laguntzeko beharrezkoa dut euskaraz jakitea. Ahalik eta esfortzu handiena egiten saiatzen naiz. Horrez gain, Euskal Herrian lan egiteko tresna oso garrantzitsua da euskara eta horretarako ere behar-beharrezkoa dut ikastea.

Zestoa asko gustatzen zait, oso jende ona dago hemen, denek errespetuz tratatzen zaituzte. Pozik nago nire seme-alabak hemengo eskolara joaten direlako. Jende asko ezagutzen dut herrian eta denekin ondo konpontzen naiz. Jende gaztea ere ezagutzen dut, Elikagai Biltegian parte hartzen baitut proiektuaren hasieratik. Ortzi, Itsaso, Nagore, Aitor, Joseba... lan asko egiten dugu elkarrekin, talde ederra da. Mikel Olaizola gaztea hasi berria da eta berari bidaliko diot Enbidoa. Zer moduz hartu zaitugu taldean, Mikel?

mariam boujari

pintada. karmele IPARRAGIRE LIZASO

Lanerako adinik izan gabe hasi nintzen umeak zaintzen, ni neu ume nintzela (11 urterekin); orduetik, zerbitzari, garbitzaile eta makina lanetan jardun dut, baina ni ile-apaintzailea naiz eta horretan nabil 14 urte nituenetik. Errenterian hasi eta Donostian, Zarautzen eta Azpeitian ibili eta gero etorri nintzen Zestoara duela 26 urte.

Eskerrak eman nahi nizkizueke urte hauetan guztietan guretik pasatu zareten bezero guztioi. Bezero baino gehiago izan zarete zuetako asko.

Bihotza beteta eta oso eskertuta agurtzen dut etapa hau berriari lekua emanez.

mamen

Jakinarazi nahi dizuet, nire gogoz kontra, azaroaren 23an Mamen Zestoako estetika-zentroa ixteko erabakia hartu nuela, langile falta tarteko, ezin izan baitut behar bezala erantzun. Dakizueenez, Mamen Estetikaren konpromisoa beti izan da zerbitzu ona ematea. Aurrerantzean ere Zestoako bezeroek zerbitzu guztiak eta gehiago izango dituzue (% 10eko deskontuarekin) Azkoitiko zentroan.

Eskerrak eman nahi dizkizuet bezero guztiei 10 urte hauetan Mamen Estetikari erakutsi diozuen leialtasunagatik. Han itxarongo zaituztegu.

HAZI ETA HEZI, EZBERDIN. Zenbat aldatu diren gauzak orain dela 50 urtetik gaur egunera arte, ezta? Hainbat eta hainbat faktore esango nuke daudela aztertze-ko gure gizarte honetan, baina ni batean oinarrituko naiz. Inoiz jarri al gara pentsatzen zenbat famili eredu dauden gure inguruan? Orain dela urte batzuk eta gaur egun? Aldaketarik egon ote da?

Lehen, beti gizonezkoak izaten ziren lana etxetik kanpo egiten zutenak eta emakumeak berriz, etxean geratzen zirenak, aukeratu gabeko etxeko lanak eta zaintza lanak egiten. Lortu al dugu lehengo eredu tradizional horretatik ateratzea?



XXI. mendean gaude jada eta oraindik ere zenbat gai dauden gizarte honetako jendeari ohartu gabe ere arrotzak egiten zaizkionak. Zeinen arraroa egiten den bi aita dituzten familiak ikustea, edota bi ama dituztenak. Nire kasuan aldiz, ama bakarreko familian jaiotzeko zortea izan dut. Honen noski, beste gauza guztiak bezala, bere alde onak eta txarrak ditu. Etxera soldata bakarra, lan batetik atera eta beste batera korrika batean joan behar izatea, etxera leher eginda iritsi, eta ezer egiteko gogorik ez edukitzea, etab. Gaztea zarenean ez zara gauza askotaz jabetzen, baina denborak aurrera egin ahala, gauza guztietaz ohartzen zara. Alegia, zenbat eta zenbat lan egin behar duen ama bakar batek ume bat hezteko eta zaintza lan horri ekiteko. Nireak a zer balorea hartu zuena berak bakarrik ume bat aurrera ateratzeko. Badaude milaka gauza askoren buruetatik pasatzen ez direnak. Hala ere, alde onak gehiago direla esango nuke txarrak baino. Zeinen polita ezta? Ama bakar batek eman ahal dezakeen babesa eta maitasuna. Nola ez, zeinen polita den bi pertsona horien artean sortzen den lotura, harremana estutzeko balio duena. Nire kasuan behintzat horrelaxe da.

Egun bizi garen gizarte honetan, famili eredu horiek guztiak normalizatzeko garaia badela esango nuke. Azken finean, elkar epaitzeari utzi behar diogu eta guztiok elkar errespetatu.

Guztion artean pauso txikiak emanez, gizarte hau errotik aldatzea lortuko dugu. Eta nola ez, eskerrik asko zuri ama, horietako bat izateagatik. Eta horrelako familia txiki handia sortzeagatik.

GOGOAN DUT

Ez naiz inoiz idazle sentitu izan, ezta gutxiagorik ere! Baina aurtengo udan Mariasun Landarekin egindako ikastaroan idazteko har txiki bat piztu zaidala aitortzen dut. Eta zu, irakurle, egun batez idazle izatera jolastu nahi? 90eko hamarkadan Joe Brainard amerikarrak “I remember” liburuan eta geroago Aritz Galarragak “Gogoan dut” liburuan egin zuen bezala, zure oroitzapenen liburuxka sortzera animatzen

zaitut. Mariasunek ikastaroan esan zigun bezala, hartu arkatza eta papera eta utzi oroimenari bere bidea egiten. Hor doa nirea (zati bat, noski).



Gogoan dut amamak egun berezietan ematen zidan propina, bi buruko txanpona. Gogoan ditut andereño Begoñarekin egiten genituen Gabon Kanten entseguak. Gogoan ditut Koiote zaharreko *eskailpera* baloi eske etortzen ziren herriko neska-mutilak. Gogoan dut herriko festetan hondarra ekartzen zutenean kaniketan jolastea. Gogoan ditut bataioak, hasieran pezetak eta gero euroak. Gogoan ditut astearte gauak, zenbat ordu platerako arrainari begira. Gogoan dut igandetako txarangako *Pakito Txokolatero*. Gogoan dut Apatei okindegiaren segidako horman zegoen murala. Gogoan ditut matematikan egiten genituen telarrak eta ponpoiak. Gogoan dut eskolako Power Pointak disketeetan gordetzea. Gogoan ditut urtebetetzeetako merendolak eta ondorengo “a polis y cacos” jolasa. Gogoan dut Herrero tabernako sua. Gogoan dut koadrilako guztien telefonoak buruz jakitea. Gogoan dut Baba, sahararra. Gogoan ditut ibilaldietako Kodak argazki-kamera horiak. Gogoan dut koadrilako kamiseta ezkutuan aukeratzea Egañazpin. Gogoan dut DBHra joan eta azpeitiarrek *preposiciones* guztiak militarrek balira bezala errezitatez. Gogoan dut azpeitiarrek ez zekitela txirula jotzen, eta guk bai. Gogoan dut mugikorreko politonoak infragorri bidez pasatzea. Gogoan dut SMStako bokal ia guztiak ezabatzea, bi mezu ez ordaintzeko. Gogoan ditut Zubiaurren *bankilo* gainean futbola ikusten pasatako arratsaldeak. Gogoan dut internet edukitzeko etxeko telefono-linea kendu beharra. Gogoan dut *autotxoketako* eta frontoiko lurra batera ukituta ematen zuen kalanbrea. Gogoan ditut autobus geltoki zaharrean pasatako orduak. Gogoan ditut Aldalur autobuseko bideo-klipak, Rammstein tartean. Gogoan dut errotonda genuela herrian, gurutzea. Gogoan dut lehenengo kalimotxoa, bost lagunen artean edan genuena. Gogoan dut lehenengo herri bazkaria, Euskal Selektzio egunean Laranjadin. Gogoan ditut udako nesken pala txapelketak. Gogoan dut...

Eta zuk, zer duzu gogoan?

maddi alberdi izeta

OSTIRAL ARRATSALDEA DA ETA ALEJO ORBEGOZOREN (ZESTOA 1985) TENPLURA IRITSI NAIZ. BERA ERE, LANETIK IRITSI BERRIA DA ETA ESAN DIT GORA IGOTZEKO, ZUZENERAKO DAUKAN SINTETIZADORE SORTA *KABLEATZEN* ARI DELA. GORAKO BIDEAN GARAGARDO BAT JARRI DIT ESKUAN ETA GUSTURA NOA GORA, *IA ZE ASUNTO*. GOIKO SOLAIRUA ZAPALDU ORDUKO KASKO BATZUK JARRI DIZKIT BELARRIETAN ETA "ENTZUN EZAK HAU, ATZO MUXIKAKO ERMITAN EGIN NUEN ZUZENEKO TEMA DUK, EA ZE IRUDITZEN ZAIAN". BA HORIXE, KASKOAK JANTZI ORDUKO SARTU NAIZ BIDAIA, ZE SOINU EDERRA, AKORDE GOZOAK..UFFF, BIDAIA SAKONA, BETIKO MODUAN. ALEJOK EGINDAKO MUSIKAK, BETI EGIN DUEN BEZALA, LEKU BENETAN EDERRETARA NARAMA ORAINGOAN ERE....

"REDIOOSSSS EARRAA OAINGUAN INDEKENARE, YALOKREO". BEGIAK ITXI DITUT ETA BIDAIA MURGILDU NAIZ, BIZKARREAN BERE BEHATZAK SENTITU DITUDAN ARTE, KASKOAK KENDU DIZKIDAN ETA BOTA DIDAN ARTE: "HI BAINA ELKARRIZKETA EGIN BEHAR GENIAN EZTA?";

"OSTRAA, BA BAI, EGIYA", ALEJORI DANBOLINERAKO ELKARRIZKETA EGITEKO ASMOTAN ETORRI NAIZ. ALEJO ORBEGOZO, ALEJO GRISES, ALEJO... *HAUNDIYA*, LAGUN ETA PERTSONA ZORAGARRIA IZATEAZ GAIN MUSIKARI APARTA, ALEJO, *KE LEPO* GOITIZENEZ BERE LEHEN BAKARKAKO LANA "IZPI" ATERA BERRI DUENA. BEHEKO SOLAIRURA PASA ETA MAHAI INGURUAN ESERI GARA BLOK BERRIKETAN EGITEKO ASMOZ.

Elkarrekin asko eta askotan egoten gaituk eta beti zaukaagu zertaz hitz egingo baina oraingoan pixka bat hitaz hitz egingo diagu, eta gauzak ondo egiteko hasieratik hasiko gaituk ezta? Goazen ba!

Beti musikaz inguratuta, musikan sartuta eta musikarekin motibatuta ezagutu haugu, nola izan zuan honen guztiaren hasiera?

Nik uste, Zestoako gazte gehienak bezala, hasierak Musika Eskolan izan zirela, solfeo pixka bat, ondoren pianoa, klarinetea (bandan jotzen ere urte batzuk bai) eta harmonia dezentente.

Hala ere, esan beharra daukat etxekeok esaten didatela oso txikitatik badudala musikarekiko halako sentsibilitate berezi bat. Artean sehaskako umea nintzela, igande eguerdiren batean negarraldian banintzen, TVEn ematen zituzten musika klasikoko kontzertuei begira jarriz gero nire negarrak bukatu egiten omen ziren. Horretaz gain, nire aita Mitxel musikaria izanda (LEOK´ K taldeko partaide), etxean askotan jartzen zizkigun Beatles, Deep Purple eta beste hainbat talde klasiko, eta horiez gozatzeko zortea ere izan genuen.

Hala ere, Musika Eskolan ikasitako instrumentua jotzeak ez zian hire musika gosea asetzen ezta?

Ez, egia duk. Pianoa jotzen urte batzuk pasa nizkian baina besteek egindako partituren interprete hutsa izatea ez zuan nahikoa, eta nire esku eta belarriek beti neure melodia berriak sortzeko bultzada sentitzen zuten.

Honen guztiaren ondoren beste hasiera bat egon zuan edo? Gehienok Grises taldean ezagutu haugu; nola izan zuan 20 urteko ibilbidea izan duen tsunami horren hasiera?

Ba ederki akordatze nauk; nik orduan pianoa jotzen nian, eta arratsalde batian nire lagun Eñaut Gaztañagak komentatu zidaan, bera, arreba Amancay, Nara, Antonio eta beste lagun bat Grises Sueños izeneko talde bat sortzen ari zirela eta *guay* egongo zitzatekeela nik pixka bat probatzea bereaiek zuten arreba Begoren sintetizadore batekin, ea nahiko al nuen... Nire erantzuna dudakoa izan zuan. Pianoa bai jotzen nian baina talde batean sintetizadorea, bada zalan-tza. Eñautek, hurrengo arratsaldean lokalera azaltzeko eta probatzeko, eta halaxe izan zuan oraintxe arteko bidaia.

Grises taldeak 20 urteko ibilbidea egin ondoren gabonetan emango zioz bukaera. Jarraitzaileak garenontzako ere ikaragarritzako pena, baina hiretzako zer izan duk eta zer duk oraindik Grises taldea?

Grises niretzako familia, lagun artea, anai-arreba artea eta leku gustuko eta seguru bat duk. Nire ibilbide musikalean batez ere agertokien ezagutza eta bizipen denak bizi eta jasotzeaz gain, beste gauza asko eman zizkidak.

Nire gaztaro eta garapen pertsonaleko momentu denak taldean bizitakoak izan dituk. Momentu alai, triste, gazi, gozo eta bestelakoak ere bertan izan dituk. Furgonetako bidaiak, kontzertu erraldoietako adrenalina, herri txikiagotako kontzertu aurreko zalantzak, aste osoko neke eta arazoak...Dena, 20 urtean bizitako denak taldean izan dituk.

Faltan botako duk taldeko giro eta babesak?

Uff, bai noski, ez nauk negar errazekoa eta pasa hadi hurrengo galderara.

Horren aurretik hasita hintzen heure kantu propioekin. Noiz eta nola izan duk hori? Beharra sentitu duk zerbait berria eta heurea egiteko?

Egia esan, betidanik eduki diat etxean ordenagailu eta soinu txartel bat, eta sintetizadoreak noski, beraz beti egin dizkiat kantak, kanta zatiak, oinarriak... Beti ibili nauk gauzak grabatzen, bai Grieserako baita bestela ere. Musika munduan, ez baduk ikertzeko, esperimentatzeko eta jolasteko gogorik, gauzek ez ditek aurrera egiten, eta ni hasieratik ibili nauk honetan. Arlo honetan Pato Amsia-ren laguntza handia izan diat, batez ere sintetizadore modularren mundua ezagutu eta joratzeko.

Halako batean, neure pare bat sormen zati igo nizkian sarera eta Aitor Etxeberria Txef_A-ren deia jaso nian, esanez ea disko berri bat publikatzeko asmotan al nenbilen. Nire erantzuna ezezkoa izan zuan, baina horren ondoren ordenagailuko disko gogorra arakatu nian eta konturatu ninduan material asko zegoela. Aitorrek hori ikusita, disko baterako material asko eta ona zegoela esan zidaan. Hortik tiraka iritsi nauk sekula pentsatuko ez nian eta oraintxe nagoen momentu edo puntura.

Aurrez grabatutako material dena errebisatu, antolatu, aberastu eta Aitor Etxeberriaren Forbidden Colours disko etxean kaleratzeko aukera sortu zuan. Lana orduan hasi zuan, kantak aukeratu, dena zalantzan jarri, landu, landu eta gehiago landu ondoren iritsi nauk, diskoa kaleratzeko zorian egotera. **Esan genezakek musika elektronikoko disko bat dela kalera-tu zorian hagoen hau: zergatik elektronika?**

Sekula ez diat pentsatu elektronika egitea, naiz eta gustatzen zaidan musika izan.

Niri gustatze zaidana instrumentuen xarma duk, beren soinua eta kolorea. Sintetizadoreak ditiat oso gustuko eta horregatik hainbeste urtetan egin diat jolas beraiekin. Horrela, kasu honetan elektronika kutsu handia zaukak diskoak, jolastu eta sortzeko erabili diaten erreminta zentrala sintetizadorea izan baituk.

Baina argi utzita nik beti melodia, koltxoi edo puntu harmoniko oso musikala behar dudala zerbait sortzeko.

“soinu ona
eta ideia
berrien oso
zalea nauk”



► **Hiretzako zer eduki behar dik kanta on batek, hik egindakoa izan (bazekiat horretan are eta zorrotzagoa haizela), edo beste batena izan?**

Ba oso argi erantzungo diat: niretzako bi gauza izan behar dizkik. Bata, kanta nonbaitera, leku edo sentsazio batera eraman behar nauela, eta gero, noski, ondo ekoiztuta egon behar duela, soinu onarekin, edo zentzua eduki behar dik ekoizpenak, artista sortzen ari duan musikarekin. Soinu ona eta ideia berrien oso zalea nauk.



Ño, hori duk gauzak garbi edukitzea, baina heure kantekin hori lortzea ez duk erraza ezta?

Ba ez. Ikusten dituk nire begi-zulo hauek ezta? Ba horren ondorio zuzena duk.

Hire lana aurkeztuz, heu sekula baino biluziago azalduz, Ke Lepo izenarekin hator eta "Izpi" duk diskoaren izena. Kontatu zerbait gehiago... Nondik izen hori, hire lanak lepo beti edukitzen dik, baino ke-tik baino gehiago mamitik izaten dik..

Klub edo diskoteketan sortzen den giroa beti gustatu zaidak. Askotan ke olatuak askatzen dizkiate, eta ke horretan musika gozatzen murgilduta dagoena, bakarrik zegok, diskoteka beteta egon arren, bakarrik, giro horrek heure lekura eramaten hau, esentziara, heure buruarekin konektatzera. Izarraitz puntan egunsenti bat gozatzean sentitzen haizen leku berberera, heure lekura, bakarrik.

Izpi diskoaren izena berriz, izen bereko kantua sortzean sentitutakoarekin zagok lotuta. Egunsentian, mendian, basoan, goizeko behelainoa zulatuz, zuhaitz artetik sartzen diren argi izpiek sortzen duten irudi eta sentsazioa sentitu nian, eta horixe izan duk diskoa hoberen laburbiltzen duen izenburua.

Ke eta Izpien laguntza izan arren, zalantzak izan dituk lan hau kaleratzeko? Heu haizen bezala agertzeko?

Ba bai, hasieran bertigo dezente, nahiz eta hainbeste urtetan musika egin, grabatu eta kaleratzen egon... Zertan ari nauk? Neure bakarkako lana kaleratzen? Baina kanten sormen eta ekoizpenean zenbat eta gehiago sartu, beldurrak desagertu egin dituk.

Orain ikusi diat zuzenekoak prestatzen habilela jo eta su.

Bai motel, disko etxeko Aitorrekin egindako tratu bakarra

“BETI IRUDIKATZEN
DIAT, ZAHARTZEN
NAIZENEAN,
OSTIRAL GAUEAN
ARETORA JOAN ETA
TALDE ETA
PROIEKTU BERRIAK
GOZATZEKO
AUKERA IZATEA
ZESTOAN”



zuan, ez niala zuzenkorik egingo. Eta begira iezaio, hemen ari nauk jo eta su honekin, diskotik zuzenekora al-daketa dezente egiteko gogoia baitiat, zerbait gehiago eskaini eta batez ere zuzenean bertan gauzak egin eta sortu, ez *play* botoia sakatu eta listo.

Eta noski, hi nola perfekzionista ez haizen... ba beste gau mordo bat lo askorik egin gabe ezta??

Holako zerbait jejeje!!

Portzierto... nahikoa garagardo edukiko diagu elkarrizketa bukatzeko ezta? Badakik gu hitz egiten hasten garenean...

Lasai motel, gezurra ematen dik hainbeste ezagutzen nauala...

Non eta nola grabatu eta nahastu duk diskoa?

Ba disko osoa etxean neuk egin eta grabatu diat, eta, nola ez, nahasketak Eñauten Gaztain estudiantan. Badakik Eñautek daukan magiarekin, dudarik ez nian soinua oso ona izango zela, eta halaxe izan duk oraingoan ere... beste behin ere.

Eñaut aipatu duanez, nor duk hiretzat Eñaut?

Uff, ba Eñaut nire lagunik onena duk. Elkarrekin bizipen oso onak bizi ditiagu. Musika asko egin eta aztertu diagu elkarrekin, eta agertoki gainean konexio handia diagu. Begirada ximple bat nahikoa duk bestea zer pentsatzen ari den jakiteko.

Eta horretaz gain, suertez, biok pasio berdina eduki diagu eta musika munduko ikerketa fase eta bidaia, batera egin diagu. Entseguko lokal eta bereziki agertoki munduan sartu ninduena bera izan huen. Bere iritzia beti duk garrantzitsua niretzat, nahiz eta askotan elkarrekin haserretu. Grabaziotan txapa handia emandakoa nauk, jajajajaj!

SAKE ERREMATEAK...

Zer?

Hire sintetizadore gustukoena?

Roland Juno 106, ez nitek ezergatik aldatuko.

Hiru musika talde?

Kabroia... galdera zaila... Smashing Pumpkins, Radiohead, Bon Iver... Eta elektronikan: Four Tet, Floating Points.

Ikusitako zuzeneko onenak?

Dedioooo... Azkenaldian uste diat gertuko eta leku txikitako kontzertuek askoz gehiago esaten didatela baina... M83, Muse (Donostiako Belodromoan)...

Kontzerturen bat gustura joko hukeen lekua?

Ba hurrengo hiru zuzenekoak, Donostiako Altxerrin, Bergarako Kartzela Zaharrear eta Durangoko Azokan izango dituk, eta ikaragarriko ilusioa egiten zidak bertan izateak.

Zaila egingo al zaik, taldearen babesik gabe, heure trasteak hartu, kotxean sartu eta zuzenekoetara joatea??

Ba bai, oso desberdina izango duk, berria, neu bakarrik, neure kezka eta ilusio guztiakin...

Zer iruditzen zaik emango duela Ke Lepok?

Ba Grisesen hasieran sentitu nian bezala, ilusioa, abentura berri bat hasteko gogo, bidaia berri batean murgiltzeko gogo, bizipen berri asko eta asko bizitzeko gogo. Horixe duk ni mugitzen nauena eta arriskatzeko gogo sortzen didana.

Eta aipatu nahiko nitek, baita ere, herriko musika mugimenduan asko eman eta ematen dena dela Eñaut. Talde eta musikari berriak beti besoak zabalik hartu baitizkik, dakien guztiaz busti eta lagunduz.

Madril, Bartzelona, Mexiko... leku askotan ibili haiz, baina egia duk Zestoan zerbait berezia badagoela, edo jendeak hori esaten dik...

Nik uste diat gazte asko musika eskolatik pasa direla, eta jo duten musika tresnari eta musikari orokorrean errespetua diotela, eta horretaz gain sormena errespetatu eta balioa ematen diotela. Esango nitek, baita ere, bertan egon diren hainbat eta hainbat talderen artean beti egon dela erlazio ona, elkar laguntzeko eta motibatuzko grina. Uste diat honek asko laguntzen duela, lanean jarraitzeko gogo piztu eta bizirik mantenduaz.

Talde eta proiektu guztietan zeudek momentu zailak, baina beste taldeak ikusi eta bizitzeak ematen dik aurrera jarraitzeko indarra, eta askotan jakituriaren transmisioa ere bai, ez baituk erraza gauza asko heure kabuz deskubritzea.

Eta esan beharra zaukaat Zestoan musika taldeez asko hitz egin dela baina badagoela eszena elektroniko oso interesgarria ere: HGS, Costmix, i3re eta Elba D.j. bezalako jende interesgarriekin. Julius MC-k egindako bide arrakastatsua ahaztu gabe noski.

Zer botatzen duk faltan Zestoan??

Ba musika taldeek entseatu ahal izateko lokal egoki bat, eta noski kontzertuak antolatzeke ondo egokitutako Gaztetxe bat, areto duin bat, aurreko urte hauetan guztietan gertatu den bezala; Gaztetxea baita herrian musika kontzertu desberdin bezain interesgarriak antolatuko dituen elkarte, gainerako musika elkarten laguntzaz. Boluntario gisan hainbeste lan egiteko prest dagoen ezinbesteko jende baita. Beti irudikatzen diat, zahartzen naizenean, ostiral gauean aretora joan eta talde eta proiektu berriak gozatzeko aukera izatea Zestoan.

Ba Ke Lepoko abentura honetarako zortea opatzeaz gain eskerak eman nahiko nitizkek.

Lehenik eta behin, gaur arratsaldeko berriketaldi honengatik, ondoren azken 20 urte hauetan egin duan musika guztiagatik, ikaragarri gozatu baitiagu hire kanta, *sinte* melodia eta akordeekin. Eta azkenik sortu duan disko zoragarri honengatik, benetan leku ederretara bidaiatzeko modu erraza baituk entzuleentzat.

A, eta beste gauzatxo bat: segi ezak musika egiten, bizitzen eta gozaten, geuretzako ere fabore ederra izango baituk.



Ke Lapo "Izpi" Durangoko azokan salgai.

Diskoetxea: Forbidden Colours.

Nahasketak: Gaztain Estudioak.

Diseinua: Xerra Estudioa.

Datozen kontzertuak:

-Abenduak 2, eguerdiko 12:30ean, Donostiako Altxerrin, diskoaren aurkezpena.

-Abenduak 2, gaueko 22:00etan, Bergarako Kartzela Zaharrear.

-Abenduak 9, goizeko 11:00etan, Durangoko azokan.



Idazten hasi aurretik idazlearena egitera jarri zen Jon Artano. Aro-zena hotelean egin zuten merkatutxoan erositako kaxoi batzuk zeuzkan eta arotz lanetan abila den lagun bati galdetu zion eskribitzeko mahaia egingo ote zion. Bi metro luze, laurogei bat zabal eta lau kaxoi ditu zurezko idazmahaiak. Horman Hego Ameriketako mapa handi bat jarri eta hura post-itez betetzen joan zen bidaia prestatu eta istorioak ontzen zihoazen neurrian.

2022ko Tene Mujika beka irabazi zuen eta sariak liburua publika-

tzea zekarren. Liburu bat idazteko ametsa beti izan duela dio, eta beka beldurrari aurre egiteko balio izan ziola, buruan zuen ideia balekoa zela sinesteko. “Anderik Ande” zuen izena aurkeztutako proiektuak, hegazkina hartu aurretik pentsatutakoa zen ordea. Bidaian pasa zituen Argentina Txile, Bolivia, Peru, Ekuador eta Kolonbia. Liburuko azken istorioa behar zuen Juana-renak. Ibili-ibili eginda ordea, liburuak Juana Perea Plataren istorioa kontatzen du.

Hil keta para disuan

Editoreak esan zion: «*Hemen bazagok liburu bat*».

Pako Aristi idazleak *Juanaren* aurkezpenean hau esan zuen: «Ibilbide luzeko idazle baten enegarraren liburua ematen du. Ikerketa lan sakona du atzean eta modu abilean dago kontatuta, intrigak eta suspenseak oso ondo daude neurtuta». Idazteko mahaiaren ondoko sofan jarri gara. Orain idazmahai leiho aurrean dago, baina batetik bestera ibili du mahai etxean lanean jardun den hilabeteetan. Goiko teilatupean aurrena, tximini ondoan gero, eta azkenik argitara begira. *Juana* liburuekin txondor bat eginda dauka sukaldeko mahai gainean. Horiek sinatzeko dauzkanak dira. Ondo pentsatuta idatzi nahi dituzkintzak.

Virginia Woolfek esaten zuen idatzi nahi zuen emakumeak berarentzat gela bat eta urtean bostehun libera edukiko zituela ziurtatu behar zituela aurrena. Bere aholkua pausoz pauso bete al duzu?



Ni pribilegiatua sentitzen naiz hau egiteko modua izan dudalako. Arrazoi du leku bat edukitzea inportantea dela dioenean. Beka bera, sei mila euro ziren. Bidaian abiatzerako gastatuak nituen horiek. Bi urteko baimena hartu dut lanean liburu egin ahal izateko.

Juanaren istorioa kontatzen duzu. Nola izan zenuen bere berri?

Kolonbian hiru urte egin nituen EITBko berrie-

maile. Ni dagoeneko hemen nintzen bueltan Juana hil zutenean, eta banuen hilketa haren berri. Ez nion gehiegi erreparatu, ordea. Gero, bidaian, Bogotan nintzela aipatu zidaten berriz eta Googlen egindako aurrenengo bilaketan harrituta geratu nintzen andre hari buruz jartzen zuen apurtxoarekin. Gero aztar-ka hasi nintzenean ikusi nuen Juana sailetik apartekoa zela. Urpekari izan zen, marinel, Afganistanen Estatu Batuetako base militar batean helikopteroen hegaldi koordinatzaile, telebis- tako ekoizle, pirata ibili zen, Tribugan eraiki nahi zuten portuaren kontrako borrokan ibili zen, emakumeentzat jostundegi bat jarri zuen martxan Termalezen. Zer ez zuen egin! Bera ostatu bat ari zen eraikitzen itsasertzean, yoga saioak, kafegintza klaseak eta emango ziren gune bat. Azken bospasei urteak horretan eman zituen, oihanean eraikuntzan, hil zuten arte.

Bere hilotza Termales herriko komisariatik berrehun metrora aurkitu zuten. “Erakuskeria” horrek zer dio?

Fiskaltzak ez du onartzen hara nahita eraman zutenik, baina herrian inork ez du horren zalantzarik. Inpunitatearen neurria erakusten du horrek, eta beste guztientzat abisua ere bada. Kolonbian bi egunez behin hiltzen dute lider sozial bat, batzbesteko zehatza handiagoa eta absurdoagoa da: 1,3 hilketa egunean.

Aurkezpenean esan zenuen mapa bat falta duela liburuak. Zein da Termalesko geografia?

Chocó departamentuan dago. Ipar eta Hego Amerika batzeko Kolonbiaren mendebaldean sartutako ziri bat ematen du. Panamarekiko muga osorik hartzen du. Atlantikora eta Ozeano Barera, bietara du irteera. Tribugako golkoan dago. 100 kilometro kosta ditu eta asfaltatutako kilometro bat bera ere ez. Nuquí da udalerriko kaskoa, eta Zestoaren neurria du, gutxi gora behera, 3700 pertsona bizi dira han. Dozena bat auzo ere baditu, eta horietako bakoitzean 400-500 bat lagun bizi dira. Oihan tropikala da inguru osoa, leku birjina da.

Anonimoak dira liburuan berari buruz eta hilketaz mintzo direnak. Isiltzea al da paradisuaren bizitzaren ordaina?

Laguna hil dietenak dira Juana nor zen kontatu didatenak eta beldurra dute. Ez dagoelako erabat garbi zergatik hil zuten, eta isilik egotea delako arazoak saihesteko modua. Bere bizilagunak ospa egin behar izan zuen, adibidez.

Han agintzen dutenek ezarritako mugak pasa ote zituen diote askok. Zein muga pasa zituen?

Seguru asko bat baino gehiago, berak ez zuelako mugarik onartzen. *Autodefensas Gaitanistas de Colombia* talde narko-paramilitarrak inguru hartan zuen buruzagiari kargu hartu zion armak soinean kalean ibiltzeagatik, Kolonbiako armadarekin ere bazuen harremana. Jendetasun handikoa, irekia eta aursarta zelako. Zergatik hil zuten, galdera horri erantzuteko ahalgina da liburuak. ▶



Ulertu, ulertzen duzula diozu liburuan, baina ezin duzula konprenitu. Zer esan nahi duzu?

Gertaeren sekuentzia ulertzera iritsi zaitezke, ulertu dezakezu biktimetako bakoitzak sortzen duen mina inguruan zenbaterainokoa den. Baina gatazkaren muina konprenitu ote dezakegun... hori beste kontu bat da. Euskararekin alderaketa eginda, guk kontatzen diogu kanpoko bati hizkuntza menderatu batean bizitzea zer den, adibide batzuk ulertu ditzake baina hark konprenitzen al du egunerokoan horrek zer esan nahi duen?

Kolonbian gatazkan bizi dira gerrillariak, paramilitarrak, ejertzitoa... eta herritarrek hor bizi behar dute, eguneroko ogia lortzeko eginahalean. Eta dena lehenaz gain gaiztotuz: narkotrafikoa.

Gaizkile taldeen eta jende soilaren artean batzuetan ez dago marra argi bat, ezta?



Ez. *Arrantza zuria* adibide ona da horretaz konturatzeko. Poliziak harrapatuko dituela sumatzen dutenean txalupatik itsasora botatzen dute kokaina kargamentua eta zehatz jakiten dute kostako zein puntutara ailegatuko diren 25 kiloko fardoak, orduan herritarrei abisua pasatzen diete eta arrantzaleak ateratzen dira fardo bila. Inongo taldeetan jardun ez arren, denek dakite nori entregatu behar dioten *arrantza* hori. Fardo bat topatzeko zoria duenak hamabost mila euro inguru lortu ditzake; dirutza handia da hori han, etxea egiteko adina.

Badu Euskal Herriko historia zati bat ere kontakizunak eta bada liburu guztian dardar moduko bat, gogoratzeaz eta historia kontatzeko moduz. Zer ikusi duzu pereatarren familian?

Beti izan dut kontatzeko moduari buruzko interes partikularra, kazetariok hori egiten dugulako azken batean; kontuak esan. Juanaren anaiarekin eta lehengusina batekin hitz egin dut familiar jaso dutenaz. Maria Victoria Preak, Juanaren izebak, *Bilobentzat* izeneko liburua idatzi zuen, inoiz argitaratu ez den lan bikaina. Etxeko gazteenei familiaren historia kontatzeko egin zuen lan hori. Nik liburu horretan esaten direnek, eta familiako memorian belaunaldiz belaunaldi transmititutako ahozko kontuek, egiatik zenbat duten frogatu nahi izan dut.

Bilbo galdu aurretikoan Agirre lehendakariak Juanaren aitaita, Andres Perea, bere bulegora deitu eta Euzkadiko altxorra ateratzeko agindu omen zion. Hori da pereatarrek diotena. Egun haiek oso nahasiak izan ziren eta bilera zehatz hori egin zenik ezin izan dut frogatu, baina egin ez zenik ere ez. Garbi dagoena da Juanaren aitaita altxor horrekin atera zela itsasontziz eta Arroxelara joan zela lehendabizi, eta Belgikara gero.

Emazteak eta seme alabek hegazkinez egin zuten ihesaldi arriskutsu bat. Horiek banaka-banaka frogatzen jardun dut, asko dibertitu naiz. Bospa sei historialarirekin hitz egin dut, Jaurlearitzak sortutako Aire Pyrénées hegazkin konpainiari buruzko tesia egin duenarekin, gerrako bonbardaketa bakoitza dokumentatu duenarekin, Euzkadiko altxorra ikertu duenarekin... Familiaren errelatoak pelikula bat dirudi, fantasiosoegia ia... baina handiena da egia dela dena, hori da historiadoreekin kontrastatu eta gero atera dudana on-dorioa.

Egundokoak pasa eta gero Belgikan elkartu zen Euskal Herritik ihes egindako familia. European gerra etorriko ote zen beldurrez, handik alde egitea pentsatzen hasi ziren eta karanbolaz iritsi ziren Kolonbiara. Aitaita eta haren koinatua zer egin asmatu ezinda berriketan ari ziren behin kafetegi batean, eta alboko mahaitik konbertsazioa entzun zuen batek proposatu zien Bogotara joatea, txerri granja baten kargu hartzeko. Horretan hasi ziren, eta gero, pixkanaka irakaskuntzan maila handia lortu zuen aitaitak.

Juana gaztelaniara itzuliko al dute?

Nahi nuke, bere ingurukoek irakurri ahal izateko.

Jasota daukazun beste istorioak zertan dira? Idatziko al dituzu?

Txile eta Argentinakoak idatzita dauzkat gutxi gorabehera. Baina oraindik ez dakit zer egingo dudana horiekin.

magore telleria

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015

Faketa Otxoa
943 148 428

unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairi
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif. 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

karmele
943 147 832

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

danbolin.eus



HAINBAT HERRIALDETA KO TXANPONAK BILTZEN ARI DEN LAGUN TALDEAREN BISITA

Lau haurren bisita izan dugu Danbolineko bulegoan. Sofia, Aya, Nahis eta Shelalarena, hain zuzen ere. Haurrek kontatutakoaren arabera, behin bost xentimokoaren antzeko txanpona aurkitu zuten, baina zerbait desberdina zuen eta emakume bati galdezka, konturatu ziren britainiar zentimoa zela. Emakume honek txanpon kubatar bat eman zien, eta orduan sortu zitzairen bilduma egiten hasteko ideia. Taberna guztiak pasa zituzten, pentsatuta, agian, denboraren poderioz pilatuta izango zituztela tabernariak euroak ez diren txanpona gehiago. Konturatzera, diru mordoxka bildu dute. Gainera, laukotearen gurasoak jatorri ezberdinetakoak dira; Ukraina, Sahara, Maroko eta Euskal Herrikoa, eta etxekoek ere lagundu diete.

Bilduma osatzen jarraitu nahi dute, eta eskolan erakusketa antolatuta. Beraien nahia handiak egiten direnean herrialde horiek bisitatzea da, nork daki!



AGIRO MENDI ASTEA ISAN DA AZAROAN

Azaroaren 15ean Alondero goraino bete zen trekking bidaien inguruko azalpenak entzuzera. Aurrena, Liam Zunzunegi eta Julen Telleriak Toubkalera igoera eta Erg Cherbbi basamortuko trekkingaren inguruko azalpenak eman zituzten. Jarraian, Maddi Alberdi eta Juankar Alberdi aita-alabek, Manaslun egindako trekkingari buruzko azalpenak eman zituzten (ikusgai daude gure atarian).

Mendi Astearekin jarraitzeko, azaroaren 17an, mendiko segurtasun tailerra egin zuten kiroldegian, Rafa Zuzaren gidaritzapean. Larunbat goizeko BTT zeharkaldiarekin eman zitzaion amaiera mendi asteari. Zestoa-Azkoitia-Olaso auzoa-Aittola-Goltzibar-Zestoa ibilbide egin zuten Jesus Mari Ibarguren "Rubio" eta Juan Karlos Iraolagoitiaren omenez.



LORETO F. IMAZ ORGANO JOLEAK KONTZERTUA ESKAINI ZUEN AIZARNAN

Azaroaren 4an, larunbata eguerdian, Loreto F. Imaz organista eta klabezinista ezagunaren kontzertu emanaldia izan zen Aizarnako elizan. Guztira 50 lagun inguru elkartu ziren 200 urte baino gehiago dituen organoa entzuzera.



ZESTOARRAK BEHOBIA DONOSTIAN

Behobia Donostia lasterketaren 58. edizioan ez dute hutsik egin zestoarrek. Webguneko sailkapenaren arabera 24 parte hartzaile izan ziren izena ematerako orduan herriaren lekuan "Zestoa" aukeratu zutenak; sei emakumezko eta hemezortzi gizonezko. Guztien artean denbora onena egin zuena, Aitor Igual izan da 1 ordu, 13 minutu eta 55 segundoko denborarekin. Bigarren lekuan Aritz Elustondo dago 1:15:43ko denborarekin. Nesketan denbora onena egin zuen herritarra Ainhoa Canseco izan zen 1:34:41 denborarekin.a.



SANMARTINAK LASAON

Azaroko bigarren asteburuan San Martin jaiak izan dituzte Lasaon. Bertso afaria, magia ikuskizuna, puzgarriak eta beste hainbat ekintza izan dituzte. Urteroko Lasaoko abere eta nekazal produktuen azokarekin eman zitzaizen amaiera.



"ARROA BIRA" GIRO BIKAIN ETA ATERIAN

Astebete atzeratu zuen Ezkaizto auzo elkarteak "Arroa bira" eguraldia tarteko eta azaroaren 12an egin zuten. Mendi irteeran 80 lagunetik gora elkartu ziren.

Bi ibilbide izan zituzten aukeran, baina parte hartzaile guztiak elkartu ziren San Lorenten hamaiketako egin eta urteroko argazkia ateratzeko.



JENDETZA ARROBEKO BASERRITAR ETA ARTISAUEN AZOKAN

Hirugarren urtez Ezkaizto Auzo Elkarteak eta Txara Kooperatibak antolatutako azokak arrakasta izugarria izan zuen. Jendetza bildu zen goiz-pasa. Hiru gunetan banatuta 44 postuk osatu zuten merkatua eta inguruko produktuen aukera askotarikoa izan zen. Gainera auzotar talde batek, soinuaren laguntzaz, katuan girotu zuen eguerdia. Giro alai eta eguraldi ona izan ziren protagonistak.



Zestoako Udala



"Gezur bat erraiten duenak, baderrake gehiago ere"
(Gotzon Garate. Atsotitzak. 2004)

usteak erdia ustel

'Euskara
oso zaila da'

"La Administración parece olvidar que el euskera ocupa la quinta posición de los idiomas más difíciles del mundo (en algunas listas aparece incluso el primero)..."

Gasteizko Administrazioarekiko 3zvk Epaitegiaren
Epaia,
2021eko abenduaren 30ekoa



Sentitu, informazioa iturria bilatu,
eta, ondoren, ekin

TALO JANA

Hilaren 15ean, AEK-ko kideok giro ederrean taloak egiten ikasi, eta sabela ederki bete genuen.

Euskara praktikatzeaz gain, Euskal Herriko gastronomiaren berri ere zabaltzen dugu eskoletan!



æk
euskara praktikoa

adinekoen txokoa

Jessica Guzman, Txiletarra

Duela 16 urte iritsi nintzen Zumaiara. Ordutik jubilatu artean, pertsona helduak zaintzen jardun duzu Urola bailaran. Zergatik etorri zinen? Emakume banandua, eta bi seme eta alaba baten ama nintzen. Nire seme-alabei unibertsitatera joateko aukera eskaintzea erabaki nuen. Eurek ikasten jarraitzea nahi zuten. Nire soldatak eta gurasoen pentsio baxuek, ordea, ez zuten unibertsitatea ordaintzeko adina ematen. Erabakia garbi nuen: bizimodu hobea bat izateko eskubidea zuten. Txilen dena utzi eta hona etorri nintzen. Dagoeneko seme-alabek ikasketak amaitu dituzte eta aurrera atera dira. Beraz, gustura nago helburua lortuta.

Zein da gaur zure egoera?

Pentsioduna naiz. Txileko eta hemengo kotizazioekin pentsio xume bat badut. Zestoan bizi arren, Zumaian denbora asko pasatzen dut, bertan Malen Etxeko lokala dugu eta neu naiz taldeko lehendakaria.

Zer da Malen Etxea?

Beste lurraldeetatik, pertsona helduak zaintzera datozen emakumeak laguntzeko elkarte bat da. Hainbat arazorekin datozen emakumeak dira. Legezatzeko paperekin laguntzen diegu eta baita lana bilatzen ere. Bi harrera etxe ditugu eta ehunka emakume jaso ditugu urteetan zehar.

Nola ikusten duzu helduen zaintza gure etxeetan?

Nahiko gaizki, egia esan. Familiakoek Foru Aldunditik diru gutxi jasotzen dute. Eta guk ere, lan egiten dugun ordu kopurua kontuan hartuta, oso gutxi kobratzen dugu. Gero eta adindun gehiago dago gizartean, eta ondorioz gero eta zaintzaile gehiago beharko dira... Dagoeneko, badira hainbat emakume hemendik Estatu Batuetara alde egin dutenak, han askoz hobeto ordainduak direlako eta hiru urte "paperak" lortzeko zain egon beharrik ez dutelako.



"Zestoan, adinekoak eta menpekotasun egoeran dauden hainbat pertsona zaindu ditut"

Pentsionistak Martxan taldea

**Fisioterapia
Osteopatia**

eskua
Therapy Group

– 943 29 08 99 –

Toribio Alzaga 20 - 22 20740 Zestoa

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

☎ 605 765 140 📍 Portalea kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclinicadental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDIOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28

ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Taxi Zestoa

9 Eserleku

Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Alzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

**Botika - Laborategia
ZURUTUZA**




Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

Gestoria Zubia
M^a Jesus Zubia Olaizola
Portalea kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

**LINTERNERIA
SANTA CLARA**

Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com

OPINIA



Bai kezka eta bai beldurra. Atzerakada ematen dit. Adinakoak zaintzeko teknologia hau erabiltzen duten robotak prestatzen ari direla entzun dut. Gauzak ezin dira horrela deshumanizatu. Non dago gizatasuna? Baina nora goaz?

adiuntz ibarbia
46 urte

Jadanik errealitatea dira, baina erreminta batzuk direla ez dugu ahaztu behar. Erabilera ona egiten badugu ba oso ondo, baina bestela, oso arriskutsuak.

sara matsutani
31 urte

Beti, kezka zalan-tza eta beldurra. Terminator Robocop eta Ziborg bezalakoak asko, gehiegi, ikusi ditudalako. Ukaezina da, hemen dago.

igor arriola
40 urte

Kezka puntua ematen dit. Gure bizitza erraztu dezakeen zerbait da, baina kontuz ibili behar da ematen zaion erabilerarekin arazorik sortu ez dezaitez.

urko canseco
41 urte

zer deritzo zu adimen artifizialari buruz?



(Erantzuleak guztira: 73)


■ Beldurra edo kezka sortzen dit
■ Interesgarria iruditzen zait



Alonderoko aretoko atea koxka txiki bat du eta tupust egiteko arriskua dago. Gainera, negu giroan, oso ilun geratzen da ate ingurua



Zestoako ikastetxeko goiko patioan eserleku berriak jarri dituzte



Gabonetako magia iritsi da.

KIMUBAT
— GARDEN

ABENDUAK

AZAROA

28 **asteartea**
19:00. Solasaldia Jon
Maiarekin Alonderon Euskara
Foroak deituta.

29 **asteazkena**
18:30 "Trantsizio
energetikoan nekazaritza eta
elikadurarekin zer?" Mirene Begiristainen hitzaldia
Argiolak antolatuta.

JUBILATUEN ASTEA

27 **astelehena**
16:00 Bingoa jubilatuen tabernan.

28 **asteartea**
17:00 karta jokoa Gisasolan.

30 **osteguna**
17:00 karta jokoa San Juan Egoitzan.

01 **ostirala**
18:00. Tortilla pintxoak eta gaztaina
erreak jubilatuen tabernan.

02 **larunbata**
10:00 Bide Osasuntsua. Ondoren, pintxo
dastaketa jubilatuen tabernan.

03 **igandea**
12:30. Urtean zehar hil diren bazkideen
aldeko meza. 14:30 Bazkaria

ABENDUA

01 **ostirala**
Gaztaina jana Arroabean.

05 **asteartea**
Kontaidau Ipuin bat.

11 **astelehena**
18:00etan Faktura tailerra
Argiolak antolatuta.

12 **asteartea**
Gabon abesbatzeko
emakumeen entsegua: 20:00etan
Sopranoak eta 20:30ean Kontraltoak

15 **osteguna**
21:00etan bertso afaria
Aizarnako Aranburu landetxean Aitor
Sarriegi eta Beñat Gaztelumendirekin
Aizarnako herri elkarteak antolatuta.

Txartelak salgai Aranburun.
19 **asteartea**
Kontaidau Ipuin bat.* Gabon
abesbatzeko gizonzkoen entsegua:
20:00 Tenoreak eta 20:30 Bajuak.

20 **asteazkena**
Gabon abesbatza eta
bandaren entsegua 20:00etan.

22 **ostirala**
Gabon abesbatzaren entsegu
orokorra 20:00etan.

GAZTELEKUA ABENDUAN

01 : txokolatada (DBH)

02 : gabonetako eskulanak (DBH).

12 : gabonetako eskulanak. (LH1
eta LH2). 16:45-17:45 edo
18:00-19:00.

14 : gabonetako ekintzetako izen-
emateak, gaztelekuan (3. zikloa).

15 : gabonetako ekintzetako izen-
emateak, (DBH).

16 : mahai-jolasak, (DBH).

18, 19, 21, 22: abenduaren 24ko
Olentzeroren etorrerarako
GABON KANTEN ENTSEGUAK.

18:00etan, gaztelekuan.

20 : gabonetako eskulanak, (LH1
eta LH2). 16:45- 17:45 edo
18:00- 19:00.

BARBANTXO AISIALDI TALDEA:

- Abenduak 1 eta 22: Arroabean.
- Abenduak 13: HH4-HH5eko
haurrentzat saioa GAztelekuan.
- Abenduak 15: Aizarnan eta
Zestoako herrigunean.

SOLASALDIA:

**EUSKAL
HERRIA B**

GONBIDATUA:

**JON
MAIA**

**AZAROAK 28
19:00ETAN
ALONDERON**



EUSKARAREN ALDEKO LANAK ZESTOAN



Gabonetako *magia* iritsi da



Urrestilla bidea, Azpeitia
943 15 00 85 | www.kimubat.eus



KIMUBAT
— TALDEA

